

KATALUNIA-EUSKADI: IKASKETARAKO IHARDUNALDIAK *

Faustino Miguélez
(*Universitat Autònoma de Barcelona*)

«Katalunia-Euskadi: gizartea eta politika» ikasketarako ihardunaldiak, Sitges-en 1983 ko irailaren 28-tik — 30-ra ospatuak, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Soziologi-Sailek antolatutak, ez dira mota hontako lehenengo esperientzia. Azken urte hauetan mintegiak eta elkartruke-ihardunaldiak ospatu dira Espainako zenbait unibertsitatearen artean; Bartzelonako «Autonomia»-n bertan, zenbait topaketa ospatu dira, Euskal Herriko eta Asturiaseko unibertsitarirekin. Lehen ere ospatzen ziren topaketa hauek, noski, baina agian gauregun zeozer ezberdina da, hots, Unibertsitateak gizartearen eskakizunei ematen dien erantzuna.

Posiblea da ekimen guzti hauek behar bikoitz baten ondorioa izatea. Alde batetik, Espainako erregioek eta —nazioek ideia—, kultur- eta ikerkuntza-arloetan duten aberastasun espezifikoak ezagutzearen beharra; kontutan harturik aberastasun hau sarritan anoratua izan dela uniformetasun faltsu batez, zeina, iraganaldian, esterilkorra izan bait da edo errepresioan bukatu bait da. Bestalde, zenbait ikuspen lokalista edo probintzialista posibleez askatzearen beharra. Egoera politiko berriak arrisku bat ekar lezake, hau da, bakoitzak bere «komunitate autonomoa» ren mugetan ixtea eta handik at ezer ez ikustea. Azken hau, jakina, ez letorkioke batera ondo ikasketari: honek, kritikoa eta eragingarria izan nahi badu, derrigorrez horizonte unibertsal bat izan behar du.

* Traducció de Gontzal Barasorda.

*EUSKADI-KATALUNIA:
ANTZEKOTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK*

Sitges-ko Ihardunaldiak hospatzearen ukitzeak hasi zirenean, genuen Euskadi eta Kataluniako eritzia, Estatuko hiritar gehienagoak duenaren antzekoa zen. Garapen ekonomikoaren ikuspegitik biek antza handia dute: Hirurogei urteetan Espainak hazkunde ekonomiko orokor handia izan badu ere, Euskadi eta Katalunia beste nazio eta erragioen aurrean kokatzen dira. Hala ere, politik-arloan ezberdintasun garrantzitsuak ematen dira, nahiz eta hemen ere elementu komun bat, nazio-gaia, mugatzailea agertu. Ikuspegi instituzional batetik, aipatutako ezberdintasunak argiro agertzen dira, adibidez, partidu-sisteman eta langile-mugimenduaren erakuntzan. Ikuspegi ez hain instituzional batetatik ezberdintasunak handiagoak dira; hala nola, Euskal Herrian ematen den borroka harmatua, edo Katalunian dagoen apatia politiko sakona, zeina, batzuentzat, delegazio politiko bat besterik ez den.

Honen aurrean, Soziologiatik gure buruari egin nahi genion galdera nagusia zera zen: Euskadin eta Katalunian ematen den modernapen prozesuak, zeintzu ezaugarri espezifikoak izan ditu eta izaten ari da? Galdera hau erantzuteko, zenbait adierazleek (okupazio-tasa, buru bakoitzeko errenta, industri-produktoak) izan lezaketeen determinismotik ihes egitea beharrezkoa ikusi dugu, nahiz eta beren garrantzitasuna ez ukatu. Bestalde, Hirurogei urteetako garapena Espainako alde dezberdinen arteko diferentziak ezabaten ari zenaren ideia kontutan ez hartzea beharrezkoa ikusi dugu baita ere. Ondorioz, debatearen helburuak bikoitza izan behar zuen: Lehenik, zenbait egitur-ezaugarriek nazio bata eta bestean izan zuten eraldakuntza berezia aztertzea; bigarrenez, faktore kultural, ideologiko, politiko, kontzientzia kolektibozko eta baita ere soziologikoen, deitutako modernapen-prozesuan izan duten pisua balioztatzea. Lehengo ihardunaldi hauek, azkenengo adierazleen debatetik ihes egin gabe, lehenengo adierazle-mota estudiatzea zuten helburua. Honen arrazoa?: metodologi-aukera butsa.

Ikus ditzagun, bada, sarrera labor honetan, ezinbesteko galdera batzu, geroago datozen txostenak irakurtzeko bizgarritzat, eta ez ordekotzat, balio daitezkeenak.

Katalunia eta Euskal Herria, beren gehiengo maila eta erritmoa hedia-kunde demografikoan, 1950-1975 periodoan izan dute, gure historia berriaren oinarritzko hogeitabost urte hauetan zehar. Aldi honetan, Katalunia % 75 bat hazi zen; Euskadi berriz, % 77 bat. Kasu bietan, gehipen honek oinarritzko elementu bat du: inmigrazioa. Hala ere, egungo egoera ez da bakarrik lehenaldi berri honen ondorioa, historia luzeago batena baizik;

hau dela eta, presentea azaltzeko, derrigorrezkoa da horizontea zabaltzea. Honela egiten badugu, elementu berri eta bereizgarriak ikus ditzakegu. Mendearen lehengo hamarkadan, Euskadik biztanleria galtzen du migrazioaren ondorioz (— 31.962), eta ondorengo hamarkadetan, 1951-60-koa arte, bere gehiengo saldo positiboa inoiz ez doa 9.000 pertsonetatik gora. Hazkunderik handiena 1951-60 hamarkadan (131.727) eta hirurogeietan (274.323) ematen da. Kataluniak, berriz, nahiz eta eskualde batetatik beste batetara aldatu, beti saldu positiboa izan du mendearen hasieratik; bigarren hamarkadan 224.291 pertsona erakartzen ditu, eta hirurogeietan saldo positiboa handiena bada ere (719.877), 1950-60 hamarkada ez da oso atzean geratzen (439.887), ez eta ere 1920-30-koa (321.995). Beste hitzekin esanez, Katalunian zaharragoa da hazkunde azeleratua, inmigrazio masiboak bultzatua, industrializazio bera zaharragoa den moduan. Bestalde Euskadin, orokorki hitz eginez, industrializazioa guda ondoren ematen da, nahiz eta beraren oinarritzko ardatz batzu lehenago agertu: siderurgia XIX. mendearen amaieran, eta banka handia XX. mendearen hasieran.

Inmigratio eta hazkunde demografiko-prozesua alde batetik, eta faktore hauek Katalunia eta Euskadi gizarte «hiri-industrial»ak bihurtzean izan duten eragina bestalde, oso ezberdinak dira. Esandakoari zera gehi genezaioke: Euskadin enpresa handiak eragin handiagoa du langile-kopuruari dagokionez; honen aurrean, erdi-mailako enpresak indar handiagoa du Katalunian. Famili-enpresak, bietan indarra badu ere, aurkezten dituen ezaugarriak ezberdinak dira: Katalunian, Bartzelonako industri-guneari oso loturik agertzen zaigu; Euskadin berriz, autonomia handiagoa du, egitura lokalista eta nekazalagoa duen.

Herri bietan migrarien integrakuntza-prozesua ezberdina da; Aipatutako egitur-ezberdintasunek, beste batzuekin batera, eragina izan behar dute prozesu honetan Katalunian eta Euskadin ematen diren diferentzietan. Katalunian, 50 eta 60.ko hamarkadetan datorren inmigrazioa, lehen etorritako garrantzizko komunitate innigrante batekin aurkitzen da; komunitate honek, mendearen hasieratik parte hartu zuen, jatorrizko katalanekin batera, Kataluniako jazokuntza politiko-sozial garrantzitsuetan. Euskadin berriz, inmigratio-prozesua berria denez gero, integrazioaren arazoa problema politiko berriei (frankismoaren diktadura eta demokraziari alegia) lotuagoa agertzen zaigu derrigorrez.

Hirigintza-ereduan gauza komun bat badago ere (Katalunia eta Euskadiko industri-hirien dentsitate handia eta hazkunde itzelezko eta harramant-sua alegia), funtsezko desberdintzapen-elementu bat dagoela uste dut: katalan ereduaren Bartzelona inguruan erdiratzen da, eta lurraldearen % 8-an, ia populazioaren % 80-a biltzen da; eta ez hau bakarrik: gainerako lurraldeak, industri, komunikabide, turismo eta abarreko ikuspegietatik, baita ere aipa-

turiko gunean daude polarizatuak. Aldiz, Euskadiko hirigintza polizentru-dunagoa (edo«area sakabanatuta»-koa) dela esan genezake.

Eredu-diferentzia honek ondorio oso garrantzitsuak izan ditzake egitura sozialean, osoki hartuta. Ondorio batzuk Sitges-ko ihardunaldietan agertzen ziren jadanik; beste batzutatuz geroago sakondu beharko da: kultur-eredua erdiratu ala deserdiratua, zoluaren erabilera sozial ezberdinak, gizarte-estratu desberdinen lurralde-banakuntza —adibidez Kataluniako profesionari eta politiko gehienak Bartzelonako hirian bizi dira—, irakaskuntza, indar sozialen (sindikatu, enpresari, konsumitzaileen) antolaketa, erdirapen politikoa eta abar. Bartzelonako erdirapen politiko eta kulturalaren aurrean (Katalunia osoa metropoliaren begietatik ikusiz amai daiteke), euskal polizentris-moa dugu, zeinak, segur aski, harreman sozial eta politikoei konplexutasun —eta aberastasun?— handiagoa ematen bait die. Aipaturiko eredu, elementu guzti hauetan eragiten duena, demografi-hizkeraz soilik hitz eginez ulertezina egiten zaigu: historikoki jadanik ezberdintasunak ikusten dira kultura, tradizioa eta politikan.

Kontutan hartu behar den beste gai bat, lanpostuen egitura da. Katalunia eta Euskadi batera kontsideratzen baditugu, Estatuko alde kapitalistenarekin aurkitzen gara, dudarik ez. Alokairukapen-tasak, 1970-ko datuen arabera, populazio aktiboaren % 80-tik gora daude. Enplegatu eta teknikari alokatuen sektoreek —«erdiko klase berriak» deituak— Espainako batezbestekoa baina pertsona-kopuru askoz handiagoa dute. Hala ere, Euskadi eta Kataluniaren arteko ezberdintasunak nabarigarriak dira:

Ogibideak, 1970-an

	<i>Euskadi</i>	<i>Katalunia</i>
1. Eskulangileak	47,2	52,69
2. Eskulangileak ez direnak	42,8	37,42
3. Nekazariak	10,0	8,31

Irudian agertzen denez, Kataluniako ogibide-egitura eskuzkoagoa eta teknikaztapen gutxiagotakoa da; honek, noski, Herri bakoitzeko talde sozialen (hots, langileria, erdiko klase eta beste talderen) egituraren eragiten du. Diferentzia hauek, ikuspegi soziologikotik, Sitges-ko ihardunaldietan aztertutako beste gaitan eragina duten ondorioak dituzte. Adibidez, boto politikoa, identitate nazionalaren kontzeptuan, erakuntza-mailetan eta erakuntzaren

ezaugarrietan, eta krisisaren ondorioetan. Baliteke, lanbide diferentzia hauen arazoak, sektore ekonomiko modernoan ezarrera ezberdinean, enpresen tamainu-desberdintasunetan eta bestelako faktoretan bilatu behar izango genituzkeela. Dena den, lanbide-egiturari buruzko datu hauek erakusten dutena nabaritzekoa da: lehenago industriaztatu den Herria ez da beti lehenago teknikaztatzen dena. Aldiz, industriaren modernizapen-motak, Herri baten barruan ere, desberdinak direla argi ikusten da.

Katalunia eta Euskadiko gizarte-egituren zenbait elementuei buruz egin-dako debateetatik, hipotesi bi ateratzen dira. Hipotesi hauek eztabaidatuak izan ziren Sitges-en, baina sakonago estudiatu eta aztertu beharko lirake. Ikus ditzagun laburki:

Lehenago modernotasunaren ezaugarriei buruzkoa da. Katalunia eragin hiri-industrial handiagoak dituen gizarte bat dela esan genezake. Eragin hauek nabaritzen dira jaiokuntz-tasa beheagoetan, familiaren kontzeptu laikoago (funtzionalago) batetan eta lan-, gizarte- eta politik- harremanen kontzeptu bitartekoago batetan; erligioa, maila pribatu batetan ulertzen da. Euskadin berriz, nekazal-eraginak nabarmenagoak dira, ugalden-portaerak ez daude oso mugatuak, lan-herremanetan paternalkeriak eragiten du —azken hau, noski, nekazal-alde batetan kokaturiko enpresa txikiari aplikatutako, baina ez enpresa handiari—, politik- eta gizarte-harremanak paktu gutxiagorekin eramatzen dira, erligioaren eraginak projektapen publiko handiagoa du, etab.

Balitzko guzti hauek zera erakutsiko lukete: Modernotasunaren bideak desberdinak dira, eredu bakar batetan ezin daitezke koka, eta, dauden diferentziak, gizarte konkretu batetako harreman sozialek dituzten ezaugarri bereziak azaltzeko balio behar dute.

Bigarren hipotesia nazio-identitatearen gaiari buruzkoa litzateke. Arazo hau, dudarik ez, oso garrantzizkoa da, bai Katalunia eta bai Euskal Herri mailan, gizabanako eta erakunde sozial eta politiko gehienentzat. Ezkertiar eta eskuindarren planteiamenduak ezberdinak dira Herri batetik bestera, eta berdina esan daiteke erakunde sozial eta politiko desberdinetaz, eta gizarte osoari buruz.

Pentsa daiteke identitate bera modu ezberdinetan bizi dutela. Esango nuke nik, identitate nazionalaren bizipenak, Euskadin, talde sozial primariozko ezaugarriak dituela: lur eta aitzinekoekin loturik dago, erreferentzialde sozial primarioenekin erlazionatzen da. Katalunian aldiz, identitate nazionalaren bizipen laikoagoa egongo litzateke, produkzioan eta politikan erdiratuagoa. Arazo hau zabala eta askotarikoa da benetan, baina aztertu beharrekoa; aspektu ideologiko eta politiko, psikologiko eta ekonomikoak ezberdinatu behar dira, eta tradizioa, erligioa eta beste faktoreen batzuek herri bezala bizi den identitatean duten eragina aztertu behar da.

Gizartea aztertzen dugunoi, beraz, desafio bat planteiatzen zaigu: Autonomi-Estatuaren gizarte-errealitatea maila zientifiko batez desfizatzea, *chauvinisme* —an erori gabe alegia.

ESPAINAREN PLURALITASUNA

Gai hauei buruzko lehenengo topaketa batek mugatuta izan behar zuen dertigorrez, eta erantzunak edo konklusioak baino gehiago, galderak sorterazi behar zituen. Hala ere, honako konklusioa aterata dezakegu: inguru politiko eta sistema sozioekonomiko berdinen barruan aurkitzen bagara ere, Herri bakoitzeko modernapen- eta aldaketa- prozesuek dituzten ezaugarriak ezberdinak dira. Ezberditasun historikoak eta oraingoak direla eta, enora ezinezko pluralitasuna dugu Espanian.

Estatuko nazio eta erregioek dituzten ezaugarrien azterketa aurrera eraman behar dutenak, gizarte-zientzialariak dira. Lan honek ezin dezake ahaz politika arloan gertatzen ari dena. Baina politikoak ere oker ibiliko lirateke, errealitatearen azterketa zientifikotik eratortzen dena kontutan hartuko ez balute, eta Espainia erakunde homogeen eta uniforme bat kontsideratuz jarraituko balira. Gure Estatuak nazio eta erregio asko du; honek, zenbaitentzat, politika eta erakuntza beharrezkoa ez litzatekeen maila batez konplikatuko litzuke; baina, dudarik ez, errealitate hori azter edo zuzentzeko dauden tresna politiko eta zientifikoak, errealitate bera baino konplexutasun eta aberastasun gutxiagotakoak dira. Azken finean, errealitatea da nagusi.

ELKARREKIKO DEBATE ETA IKASKETEN ETORKIZUNA

Sitges-ko ihardunaldien konklusioetan jadanik, debatearen jarraipena garantizatzearen konpromezua hartzen genuen, II. ihardunaldi batzuen bidez; honelako topaketak, nahiz denbora gutxi iraun, itzelki emankorrak izaten dira. Baina honen aparte, beharbada kontutan hartu behar genukeen aukera bat zera izango litzateke: Unibertsitate barruan elkartruke naharo eta sistematikoagoak bultzatzea ikertzapen eta hezkuntza unibertsitariozko «*curricula*» en barruan, ohizko gauza bezala. Honela, zenbait helburu lortu nahi izango lirateke: Espainako nazio eta erregioen artean unibertsitate mailan mantentzen dugun elkar-jakinetasuna apurtzea; ikertzapen eta erakuntza-gaitasunen zabalkuntza, bakoitzaren mugen kanpo, posible bihurtzea;

gure errealitate sozialaren ezaguera bete eta kritiko bat lortzea. Bai instituzionalduriko jakintzen bidez (ekonomia, soziologia, historia, geografia eta abarrez), bai diziplinaarteko ikasketak eta hezkuntza bultzatuz, aipatutako helburu guztiak bete litezke.

Jadanik zenbait esperientziarekin has genezakeela uste dut nik. Hona hemen batzu, adibide bezala:

1. Espainako unibertsitate ezberdinetatik metodologi-euskarri komuna izango luketeen aktualitatezko zenbait gairi buruzko ikerketa batera egina eta gonbaratua.

2. Kurtso edo mintegi egonkorak unibertsitate bakoitzean, edo behintzat printzipaletan, nazio eta erregio desberdinetako egitura sozio-ekonomiko-politikoaren aspektu espezifiko batzu aztertuko zituztenak; aspektu hauek ez lute ordeztu beharko, aurrezsuposatu baizik, diziplina desberdinen irakaskuntza, non «erregio-aldagaiak» funtsezkoa izan behar bait du.

3. Ikuspegi instrumentalago batez, unibertsitate bakoitzeko bibliotekan «autonomiak» izeneko sail bat sortzea oso ondo legoke. Sail honetan, erregio eta nazionalitateak hobeto ezagutzeko balio izango lukeen gizarte-zientzi arearen bibliografia osoa bilduko litzateke, exhaustibotasun-asmobatekin; honela, gaur egun sarritan gertatzen dena, hau da, erregio konkretu batetako dokumentu, material eta argitarapenak bere mugetatik kanpo oso eskaski ezagutzen direla, ekidingo litzateke.

4. Beharbada eragingarria litzateke unibertsitateen arteko Instituto bat sortzea, aipatu ditudan ikerkuntz-areak eta agiri-fondoan finkapena bultzatzeko; honela, agian askoz gehiago lortuko litzateke: unibertsital-elkartrukea eta Unibertsitatearen zabalkuntza.

Beharbada, esperientzi hauetako batzu ez dira aurrera aterako, agian beste zenbait esperientzi emankorrago sortuko dituzte. Nola edo hala, Unibertsitatea eta unibertsitariok, gaur egungo Espainan ematen den Herri desberdinen arteko elkarbizitzak esan nahi duenarengan kritikoki sakontzeari uko egingo bagenio, ez genuke gure zeregina bete izango.

Oharra: Sttges-en aurkezturiko txostenez gainera, *La estructura social del País Vasco*, Francisco J. Llera-ren artikulua aipatu behar dut hemen, balioganitasun handitakoa izan bait zait.